

Egia

**Maidier IANTZI
GOIENETXE**

Françoise Dolto pediatra eta psikoanalista frantsesak errana da: «Denok dugu ulertzeko gaitasun bera sortzetik heriotzara arte». Ez dugu hori sinesten, ordea. Adinkeria da horren adibide. Umeez arikonaiz oraingoan, egia jakiteko duten eskubideaz, zehazki.

Laura Gutmanek dioenez, egia zehatza hitzez adierazteak haurraren ulermen antolatzen du, eta logikak eusten duen egitura emozionala eraiki. Ttikia denean eta oraindik solasean hasi ez denean, kanpo egia xehetasun guztiekin azaldu behar diogu, hitzekin gertatzen dena itzuliz. Bada barne egia ere, bihotzetik kontatzen dudana: gertatzen zaidana, sentitzen dudana, nahi dudana,

beldurtzen nauena. Haurra amaren eta zaintzaileen emozioetara atxikita dagoenez, gure bihotzetik hain hurbil, gure egiaren itzultzaile zehatz bilakatzen da. Horregatik, egia erraten badiot, nire ardura hartu, eta umea askatuko dut. Jada ez du amak sentitu bai baina oraindik adierazi ez duena erakusteko betebeharririk izanen.

Idazle eta pentsalariak aldarrikatzen duenez, gertatzen zaiguna, are, gertatu izan zaiguna ere, haurrari ere badagokio. Gure haurtzaroan bizitako egoera mingarriak, adibidez, oraindik durundi egiten digutenak, justu horiek bereak bezala biziko ditu. Hortaz, ulertzea merezi du, guk ulertzea lortu duguneraino behinik behin.

Semea solasa galtzen ikusi nuen nire ispiluan, nire angustia somatizatzen, eta korapiloa askatzen hasi nintzeanean, magiaz bezala, hitza berreskuratzen joan zen, beti izan den solasturia izan arte berriro. Berriki, ipuin kontaketa batean izan gara elkarrekin, eta jendaurrean hain natural eta hitzun ikustean, harrotasuna sentitu dut, bere ondoan nire aurpegia gorritzen sumatzen nuen aldi berean.

Egia da Youtubek ez duela funtzionatzan erran diodala eta gezur horri esker hobeki gaudela. Egia da ipuinetako pasarterik gogorrenak azkarrago irakurtzen dizkiodala, gainetik bezala pasatzeko. Baina garbi dut ezintasun horiek nireak direla, eta ez bereak. •

Zero

**Xabier Mikel
ERREKONDO**

Matematika zientzia zehatza da. Edozein delarik ere zenbakiak dantzan jartzen dituen formula, emaitza zehatza da. Orain bai, testuinguruan jarritako eragiketa hitzekin zehaztasunez adieraztea gehiago kostako zaigu, ez baita berdin-berdina zenbakien eta letren dantza.

Gaurkoan, baina, zenbaki batean nahi nuke zentratu; zenbakirik borobilena, zero, alegia, 0.

0 ezerezaren sinboloa da, bai, baina 0 eta “ezer” ez dira gauza bera, zero ezer baino zerbait gehiago da. Ze ezereza ez da hutsa, Oteizaren begietatik hutsa dena da, hortik hasten da dena. Aldiz, ezereza

ez-den dena da, esango nuke, existitzen ez den hura baino ezin da izan ezereza.

Zeroa hutsa adierazteko ere erabiltzen da, eta nago egokiagoa dela ekibalentzia hori; eta zer esanik ez bi zero etzanik infinitu osatuz, alegia, Oteizaren hutsa adierazteko proposa, hutsa dena baita, amaigabea, espazioek eta formek elkarlanean eraikia.

Zeroa oreka da, zenbaki negatiboen eta positiboen arteko eremua, tentsioen bare-puntua, sokatiran erdigunezko zapia...

Zero behar lukete lanean hildako beharginak; zero zaborrak; zero emakume jazarriak; zero etorkin itoak Mediterraneoko eta Bidasoko ibai gorrituetan.

Nahiago genuke halako arazoak inoiz gertatu ez eta ezereza balira, gertakari horien aukeraz pentsatzen jartzeko ere arrazoirik izango ez bagenu. Baina tamalez izugarri dira eta bakoitza bera izugarrikeria da, eta, ezerezean ezin utziko ditugun arren, nahikoa lan badugu aipatu kasuak zero zenbakira eramaten; 0!

Zirkuluaren amaierak halabeharrez hasiera puntura garamatza, bira osoa eman ondoren 0 puntura, eta nahaste honetatik guztitik, nago, zeroren, ezerezaren eta hutsaren arteko ezberdintasunekiko azterketa egingo balidate, bada-kidala ze nota aterako nukeen; begiek hartu duten forma nabari dut... •